

Ibilbidea: Soraluze – Azkonabieta – Egoarbitza – Aixola

Soraluze (110 m) – Krabelinatx (603 m).- Rekalde kalean ematen zaio hasiera txangoari, BUS geltokiaren aurrean. Igogailuaren ondoan dauden eskaileretatik igo behar da eta Solaguen eta Itzio baserrietara doan bidea hartu. Solaguen baserria pasatu ondoren hormigoizko pistatik aldapa gogorra gaindituz Hego norabidea jarraitu behar da. Lehendabiziko bidegurutzean eskuinera hartu, bigarrenean berriz ezkerreara eta Untzueta-azpikoa baserri bergatararrentz jarraitu. Baserri honetan hormigoizko bidea bukatzen da.

Antena batetik gertu dagoen ate sarea pasatu eta zidorra gorantz jarraitu lpar-mendebal norabidean. Bide tarte hau Soraluze eta Bergara arteko mugatik doa. Untzueta-erdikoa baserritik gertu hormigoizko pista batera iritsi eta eskuinera jarraitu behar da. Berehala bidegurutze berri bat dago, oraingoan ezkererantz joan behar da, Untzueta-gañekoa baserrira hain zuzen. Hau atzean utzi eta koniferaz estalitako maldan barneratu. Hego-mendebal norabidea segi eta bidegurtzetan goranzko bidea hartu sigi-saga bat eginez. Zuhaitzitik irteterakoan Karakate, Arno, Urko, Deba ibaiaren behe ibarrera bistak dauden gune batean, ezkerrean, zuhaitz lehor baten ondoan **KRABELINATX (603 m)** mendiaren gaina dago. Buzoi eta erpin geodesiko bat dago. Tontor hau Bergarako udalerrian dago.

Krabelinatx (603 m) – Azkonabieta (724 m).- Bidera itzuli eta koniferen artean jaitsiera hasi Bergarako Gallaztegitorea baserriraino. Baserritik metro batzuetara pista utzi, eskuineko hesia pasatu eta pixka bat aurrerago zuhaitzian gora eskuinerantz doan bigarren zidorra hartu. Aurrerago, pago batzuen ondoan ezker-eskuin egin eta altako dorre baten ondotik pasatu ondoren pixka bat jaitsi behar da. Beste bidegurutze bat, eskuinera jarraitu eta berehala ezkerreko bidea hartu eta berriro gorantz joan. Noizbehinka jarraitu behar den bidea adierazten duten marka gorriak daude. Aurrerago, bidegurutze berri batean, borda baten ondotik doan eskuineko bidea hartu eta altuera hartzen jarraitu. Pagadi txiki bat duen Gaztandolaku muinoa ezkerretik zeharkatu. Hemen dago Bergara eta Elgeta arteko muga.

Tarte motz baten ondoren Elgeta eta Udalaiz ikusten dira, baita Azkonabietara igotzeko azken partea ere. Geroxeago bidegurutze bat dago eta 5 zenbakidun plaka urdina duen zutoi bat bertan. Hemen agertzen den norabidea jarraitu eta laster beste bidegurutze bat dago, aurrean antena bat duen Azkonabieta mendia. Eskuinean gorantz doan bidea hartu, laster bide hau utzi behar da eta baso ertzetik gora doan zidorra segi. Hemendik panoramika ederraz gozatu daiteke: Karakate, Erlo, Irukurutzeta, Irmo, Xamiño, Izazpi, Aralar, Beriain, Aizkorri, Elgea, Kurutzebarri, Udalaiz. Metro batzuk gehiago eta **AZKONABIETAKO (724 m)** tontorra. Buzoia, erpin geodesikoa eta antena bat, baita pinu eta tuia batzuk ere. Elgetako udalerrian. Durango aldeko mendien bista ederrak daude.

Azkonabieta (724 m) – Egoarbitza (730 m).- Antena ondoko zidorretik eta hormigoizko pistatik Karabietaraino jaitsi behar da, Elgeta eta Eibarren artean. Orain errepidea pasatu eta Egoetxeagara doana hartu. Errepide honetan tarte motz bat egin ondoren lehengo bidegurutzean eskuinera hartu. Aurrerago txabola batzuen ondotik doan ezkerreko bidea jarraitu eta altura hartzen hasi. Beste txabola batera iristen da, aurrean Egoarbitzako tontor harritsua altxatzen da. Eskuinera joan behar da eta zidor estu batetik harkaitzak zeharkatuz **EGOARBITZAKO (730 m)** tontorrera igo. Elgetako lursailetan. Buzoia eta 360ºko panoramika ikusgarria.

Egoarbitza (730 m) – Aixola (310 m).- Ibilaldiaren azken zatia Aixolako urtegirainoko jaitsiera aldapatsua da. Horretarako justu tontorrera iritsi aurreko lautadaxora jaitsi eta eskuinerantz hesi (dagoeneko ia ez dago hesirik) pasabideraino jaitsi eta zidor estu bat jarraituz zertxobait beheago ikusten den bideraino jaitsi. Behin bidean ezkerreara joan eta igoera aurreko txabolaraino joan. Aurreko lautadaxoan eskuinera biratuz zidor arrastoa jarraitu eta laster bide nabarmenagotik beherantz joan. Pista batera iritsitakoan behera jarraitu eta sigi-saga batzuk eginez bidea Aixolako urtegira iristen da. Presa ondoan errepidez 500 bat metro jaitsi Olaikorta tabernaraino, hau ere Elgetako partean, txangoari amaiera emanez.

Recorrido: Soraluze – Azkonabieta – Egoarbitza - Aixola

Soraluze (110 m) – Krabelinatx (603 m).- Comienza la excursión en la calle Rekalde, frente a la parada de BUS. Hay que subir las escaleras que hay junto al ascensor y tomar el camino que se dirige a los caseríos de Solaguen e Itzio. Tras pasar junto al caserío Solaguen se continúa con dirección Sur superando la fuerte pendiente por un camino de hormigón. En el primer cruce hay que tomar a la dcha., en el segundo a la izquierda y seguir dirección al caserío bergarés Untzueta-azpikoa. En este caserío finaliza el camino de hormigón.

Franquear una verja cerca de una antena y por el sendero seguir subiendo, ahora en componente Noroeste. Este tramo discurre por la muga entre Soraluze y Bergara. Cerca de Untzueta-erdikoa se alcanza una pista de hormigón que hay que seguir hacia la derecha. Rápidamente hay un nuevo cruce, en esta ocasión se va hacia la izquierda, al caserío Untzueta-gañekoa. Dejar atrás el caserío y adentrarse en la ladera poblada de coníferas. Seguir dirección Suroeste y en todos los cruces tomar el camino ascendente, realizando un zig-zag. Al salir del arbolado en una zona con vistas a Karakate, Arno, Urko, la cuenca baja del Deba..., a la izquierda junto a un árbol seco, se encuentra la cima de **KRABELINATX (603 m)**. Hay un buzón y un vértice geodésico. Esta cima se encuentra en el término municipal de Bergara.

Krabelinatx (603 m) – Azkonabieta (724 m).- Regresar al camino y comenzar el descenso por zona de coníferas hasta llegar al caserío bergarés de Gallaztegitorea. A unos metros del caserío dejar la pista, pasar el vallado de la derecha y un poco más adelante tomar el segundo sendero hacia la derecha, que asciende por el arbolado. Más adelante realiza un giro izquierda-derecha junto a unas pocas hayas y tras pasar al pie de una torre de alta tensión descender un poco. Otro cruce, seguir hacia la derecha y enseguida por el camino de la izquierda comenzar a ascender nuevamente. En ocasiones se ven marcas de pintura roja que indican el camino a seguir. Más adelante, en un nuevo cruce, seguir por el camino de la derecha que pasa junto a una borda y continuar ganando altura. Bordear por la izquierda la loma de Gaztandolaku, en cuya ladera hay un pequeño hayedo. Aquí se deja el término de Bergara y se pasa al de Elgeta.

Tras un corto trecho se da vista a Elgeta y Udalaitz, también se puede observar el tramo final de la ascensión a Azkonabieta. Poco después se llega a un cruce de caminos donde hay un poste con una pequeña placa azul con el número 5. Seguir la dirección indicada en la misma y enseguida hay un nuevo cruce, delante la cima de Azkonabieta, coronada por una antena. Tomar el camino que asciende a la derecha, pronto hay que dejar este camino y por el sendero de la izquierda subir por el borde del arbolado. Desde este lugar se puede disfrutar de una bonita panorámica: Karakate, Erlo, Irukurutzeta, Irmo, Xamiño, Izazpi, Aralar, Beriain, Aizkorri, Elgea, Kurutzebarri, Udalaitz. Unos metros más y la cima de **AZKONABIETA (724 m)**. Buzón, vértice geodésico y antena, además de algunos pinos y tuyas. Municipio de Elgeta. Hay una magnífica vista de los montes del duranguesado.

Azkonabieta (724 m) – Egoarbitza (730 m).- Por el sendero junto a la antena y la pista de hormigón hay que descender hasta el Alto de Karabieta, entre Elgeta y Eibar. Ahora cruzar la carretera y continuar por la que se dirige a Egoetxeaga. Tras un corto recorrido por esta carretera tomar el primer cruce a la derecha. Más adelante seguir por el camino de la izquierda que pasa junto a unas chabolas y comenzar a ganar altura. Se llega a una nueva chabola y enfrente se eleva el promontorio rocoso de Egoarbitza. Hay que dirigirse hacia la derecha y por un estrecho sendero se asciende bordeando las rocas hasta alcanzar la cima. **EGOARBITZA (730 m)**. Municipio de Elgeta. Buzón y una panorámica extraordinaria de 360°.

Egoarbitza (730 m) – Aixola (310 m).- La parte final del recorrido se trata de un pronunciado descenso hasta el embalse de Aixola. Para ello hay que bajar al pequeño rellano que hay justo antes de la cima y por la derecha descender al paso de alambrada (ésta ya casi ni existe) y seguir bajando la pronunciada ladera por un estrecho sendero hasta el camino que se ve un poco más abajo. Una vez en el camino girar a la izquierda y regresar a la chabola anterior a la ascensión. En el llano previo girar a la derecha siguiendo un vago rastro de sendero y pronto comenzar a descender por un camino más definido. Al llegar a una pista continuar la bajada y realizando varios zig-zag se llega al embalse de Aixola. Junto a la presa bajar unos 500 metros por la carretera hasta el bar Olaiorta, aún dentro del término municipal de Elgeta, donde finaliza la excursión.